

# ikAPPsi ingurumenagatik!

Ezagutu eta planifikatu nahi duzun ibilbidea, nahi duzun jardueraren arabera, 75 aukera ezberdin dituzu!


Gainera, ibilbideko kilometroak, desnibela, maila edo ibilbide zirkularra nahi baduzu bezalako iragazkiak gehitu ahal izango dituzu.

Zure txangoak antolatzeko beste aukera bat zerrendak sortzea eta interesgarrienak iruditzen zaizkizunak gehitzea da. Nahi adina zerrenda sor ditzakezu.

Ibilbidearen mapak deskargatzeko aukera duzu, eta, gero, Interneteko konexiorik gabe egin ahalko dituzu.

Aplikazio honen beste aukera bat, argazkiak eta [wikiloc](https://www.wikiloc.com)-eko komunitatearekin egin dituzun ibilbideak partekatzearena da. Horrela, jende gehiagori, gustoko dituzun bideak, hutsuneak, ibilbide ezberdinak... ezagutzen lagunduko diozu. Ibilbidea grabatu eta gorde dezakezu, baita lineaz kanpo ere bai. Interneta soilik beharko duzu argitaratzeko. Aplikazio hau, batez ere, erabiltzaile eta komunitate osoaren parte-hartzean oinarritzen da.

wikiloc



Atera eta naturarekin bat egin, naturarekin daukazu erlazioa indartuz! Ikasi eta behatu baina batez ere babestu eta zaindu ingurua ondo pasatzen duzun bitartean!

